
2018ko urtarrila | Buletinaren 071. zbk.

EAetik kanpo esperientzia eta ikaskuntza bereganatu dutenak berreskuratu: talentua erakarri

[Lanbide pertsona gazteen \(35 urte arte\) kontratazioa sustatzea bilatzen duen diru laguntzen](#) deialdia jarri du martxan, azken aldian euren karrera profesionala EAetik kanpo garatzen ari diren, baino lotura bat dutenak eta itzuli nahi dutenak, euskal lan merkatuan sar daitezzen.

>>[Informazio gehiago](#)

Euskal Lanbide Heziketa Suediarentzat eredu

[Suediako Goi-mailako Lanbide Heziketako arduradunek Euskadi bisitatu](#) dute Euskadiko LHak diseinaturiko ereduak eta sistemak ezagutzeko eta sistema hauek euskal ikastetxeetan nola aplikatzen diren jakiteko, etengabeko hobekuntza kudeatzeko eta zerbitzuen kalitatea bermatzeko helburuarekin.

Suediar ordezkari oso interesatua agertu da ikusitako praktikengatik eta euren zentroetan euskal kalitate eta kudeaketa sistemak aplikatzeko aukera ez dute baztertzeko.

>>[Informazio gehiago](#)

Donostiako Sustapenak nazioarteko mugikortasunerako 25 beka eskaini ditu, Connecting Talent bitartez

San Sebastian Connecting Talent strategiaren baitan, [Donostiako Sustapenak nazioarteko mugikortasunerako 25 beka eskainiko ditu](#) atzerriko erreferentziazko erakundeetan nazioarteko bikaintasun proiektuak burutzeko.

>>[Informazio gehiago](#)

Euskadiko Lanbide Heziketa berriz ere eredu bilakatu da atzerrian

Eusko Jaurlaritzako LHko sailburuordeak LHK mundu mailan dituen erronkak garaitzeko [beharrezkoak diren gaitasunak aurkeztu ditu Dominikar Errepublikan](#). Gainera, euskal LHko ereduak erronka hauei nola egiten dien aurre azaldu du.

>>[Informazio gehiago](#)

PIRLS 2016: nazioarte mailan irakurmen gaitasuna neurtzen duen adierazlea

kerketak Lehen Hezkuntzako ikasleen irakurketa irakurmen gaitasuna neurtzen du (laugarren maila), eta baita faktore sozioekonomikoak, irakurmen-ohiturak edo ikaskuntzako testuinguruak honengan duten eragina ere. 60 herrialde eta eskualdek baino gehiagok hartu dute parte Hezkuntza Errendimendu Ebaluaketarako Nazioarteko erakundeak bost urtez behin argitaratzen duen ikerketan. Eta Espainian Hezkuntza Ministerioaren laguntza izan du ikerketa aurrera eramateko.

>>[Informazio gehiago](#)

Lanbide Heziketaren papera enplegu kualifikatuaren sorreran

CEDEFOPek herrialde desberdinetan Lanbide Heziketak dituen definizio eta kontzepzioen inguruan adituei egindako inkestaren inguruan ondorioztatutako emaitzak aztertzen ditu.

Txostenak estatuen arteko sistemen artean aniztasun esanguratsua dagoela azaltzen dute eta, batez ere, LHa prestakuntza bide zehatz eta espezifikoa bezala ulertzen da enplegu kualifikatua ziurtatzen duena.

>>[Informazio gehiago](#)

Beste albisteak...

>>[Interesa duten bestelako albisteak](#)

Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Oreko Departamentua
Gipuzkoa Plaza, z/g
20004 Donostia-SanSebastián • Gipuzkoa

T. +34 943 112 217
info@ikasmina.net

Gure zerrendatik zure harpidetza bertan behera utzi nahi izanez gero, esteka honetan klik egin: [Sakatu hemen buletineko baja berresteko](#)
Gure buletin guztiak arazorik gabe jasotzeko, sartu info@ikasmina.net zure kontaktuen zerrendan.